

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 14 erakundek sustatutako 300 kultur ekintza finantzatuko ditu

*Deialdiaren xedea kultura zabaltzeko jarduerak sustatzea da (hitzaldiak, batzarrak, erakusketak...), eta 135.000 euro banatzen ditu*

Viernes, 19 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuak irabazi-asmorik gabeko 14 erakunde nafarrek sustatutako 300 kultur ekintzatik gora finantzatuko ditu, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Departamentuak berriki ebatzitako konkurrentzia askeko laguntza-deialdi bati esker.

Hala, 135.000 euro banatuko zaizkie irabazi-asmorik gabeko kultur erakundeei Foru Komunitatearen barnean, 2015ean zehar hitzaldiak, batzarrak, erakusketak, lehiaketak, ikerketa, kongresuak eta kultura zabaltzeko beste ekintza batzuk egin ahal daitezen.

Erakunde onuradunak eta hitzartutako diru-kopuruak honako hauek dira: Nafarroako Ateneoa (27.000 €), Nafarroako Donejakue bideko Adiskideen Elkarte (4.025 €), Ortzadar Euskal Folklore Elkarte (2.250 €), Atena fundazioa (2.472,76 €), Nafarroako Azterketa Historikoen Elkarte (2.684 €), Nafarroako Bertsozale Elkarte (16.000 €); Iruñeko Ganberako Abesbatza Elkarte (4.454,94 €), Amigos de Cascante Vicus kultur elkarte (5.775 €) eta La Caracola kultur elkarte (6.380 €).

Diru-laguntza jaso dute ere: Nafarroako Euskal Dantzarien Biltzarrak (13.750 €), Gerónimo de Uztáriz Historia Sozialeko Nafarroako Institutuak (3.491,48 €), Tiza. Komikia Sustatzeko Elkarteak (25.000 €) eta Ipes Gizarte Ikasketak Sustatzeko Fundazioa Institutuak (21.716,82 €).

### Ekintzen proposamena

Diruz lagundutako proiektuek kultur ekintzen proposamenak aurkezten dituzte, esaterako:

-Argazki, bideosorkuntza, instalazio, arte plastiko, arkeologia eta kultur ondareari buruzko askotariko erakusketak.

-Hainbat gairi buruzko hitzaldiak, hitzaldi ilustratuak, mintegia, solasaldiak, mahai-inguruak eta eztabaidak: historia, zinema, folklorea, politika, artea, literatura, komikia, gizarte-mugimenduak eta generokoa...

-Bisita gidatuak, folkloreaken zabalkundea, tailerrak, aurkezpenak eta liburuen sinadurak.

-Jardunaldi monografikoak, adibidez: XXVII. Donejakue bidearen Jardunaldiak, VI. Komiki Azoka, X. Cascanteko Aste Erromatarraren X. Edizioa; Mapamundistas 2015 Postalen aurkakoak eta XXXI, Folklore

Jardunaldiak.

-Lehiaketak: Nafarroako XLII. Bertsolari Txapelketa; XXII. "Donejakue bidea" Nazioarteko Argazki Lehiaketa; Luis Morondo Konposizio Lehiaketaren VIII. Edizioa

Ekintza horiek guztiak 2015ean egingo dira, Iruñean gehienak. Nolanahi ere, Nafarroako beste 19 udalerritan ere izango dira: Agoitz, Artika, Barañáin, Berriozar, Burlata, Cascante, Corella, Elizondo, Lizarra, Huarte, Irurtzun, Lakuntza, Lesaka, Noain, Erriberri, Tuter, Atarrabia, Zizur eta Zubiri.